



Gordexolako Udala
Ayuntamiento de
Gordexola

**“2017KO MARTXOAREN 8KO
ADIERAZPENA.
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO
EGUNA.**

AZALPENA

1975ean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak martxoaren 8a finkatu zuen Emakumeen Nazioarteko Egun gisa. Mugarri Garrantzitsua izan bazen ere, nazioarteko ospakizun hau ez zen egun hartan hasi; izan ere, XIX. mendearen amaierako eta XX.aren hasierako zenbait gertakaritan oinarritzen da. Hain zuzen ere, 1910ean, 17 herrialdetako 100 emakume baino gehiago Kopenhagen bildu ziren, eta Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko proposamena onartu zuten; hori horrela, lehen ospakizuna 1911ko martxoaren 16an egin zen. 1917an, emakume errusiarrak euren eskubideen alde manifestatu ziren; martxoaren 8an izan zen, egutegi gregoriotarraren arabera. Beraz,

1.- Badira 100 urte baino gehiago Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen dela, gizonekiko erabateko berdintasunean eta gizarteko esparru guztietan parte hartzeko borrokaren hasiera.

2.- Badira egun honetan nabarmendu beharreko hainbat gauza, baina batez ere, krisialdiaren aitzakian, botere ekonomiko eta politikoak hartzen ari diren erabakiek pertsonen bizitzetan eta bereziki emakumeengan dauzkaten ondorio lazarriak.

**DECLARACIÓN DEL 8 DE MARZO
DE 2017.
DIA INTERNACIONAL DE LAS
MUJERES.**

EXPOSITIVO

En el año 1975 la Asamblea General de Naciones Unidas estableció el 8 de marzo como día internacional de las mujeres. Aún siendo un hito importante, éste no fue el comienzo de esta conmemoración internacional, que se remonta a diversos hechos de finales del siglo XIX y comienzos del XX. En concreto, en 1910, más de 100 mujeres procedentes de 17 países y reunidas en Copenhague, aprobaron la propuesta de proclamar el Día internacional de la Mujer Trabajadora, siendo en 1911 el primer acto de celebración, el día 16 de marzo. Ya en 1917, fueron las mujeres rusas las que se manifestaron a favor de sus derechos un 8 de marzo según el calendario gregoriano. Así:

1.- Son más de 100 años de conmemoración del día Internacional de las mujeres, del comienzo de su lucha por participar en todos los ámbitos de la sociedad en plena igualdad con los hombres.

2.- Hay muchas cosas que destacar en este día, sobre todo las terribles consecuencias que están teniendo en la vida de las personas, y especialmente en la de las mujeres, las decisiones políticas, que con el pretexto de la crisis, están tomando los poderes económicos y políticos.



Gordexolako Udala
Ayuntamiento de
Gordexola

3.- Krisi-egoera honetan, merkatuen errentagarritasuna handitu nahian, austeritate neurriak jarri dituzte martxan, urteetako borrokaren bitartez irabazitako eskubideak galtzeko arriskuan jarritz.

Enpleguaren egonkortasunik ezak, soldata urriek eta lan-eskubideen inboluzioak emakumeak krisi ekonomikoaren kaltetu nagusi izatea eragin dute.

Bestalde, sektore publikoko murrizketek gizarte zerbitzuen prestazioetan eragin zuzena izan dute, eta horren ondorioz gizartearen sektore ahulenengan, bereziki emakumeengan, haurren eta adinekoen funtsezko euskarri diren neurrian.

4.- Ekonomiaren oinarrian etxeko lanak eta zaintza-lanak dauden arren, sistema kapitalistak lan hauek gutxietsi egiten ditu. Ezkutuan geratzen dira, sozialki ez dira errekonozitzen eta ordaindu ere ez. Lan-estatusa bera ukatu egiten die, nahiz eta jakin bizitzaren oinarria direla, lan-indarra sortu eta mantentzen duten lanak direlako.

5.- Lan-merkatuan emakumeek gizonenak baino %36,2 gutxiago kobratzen dute. Lanaldi partzialetan dauden %80,9 emakumeak dira.

Horrek guztiak eragin du, emakumeak sistema produktibo prekarizatuan eta erreproduktibo hain kargatuan aritu behar izatea.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak aurrera egiten ez badu, atzera egiten du, maldan gorako lana baita

3.- En esta situación de crisis, con el fin de aumentar la rentabilidad de los mercados se han puesto en marcha medidas de austeridad, poniendo en grave riesgo los derechos ganados durante años de lucha.

La precariedad laboral, los salarios escasos y la involución de los derechos laborales, han convertido a las mujeres en las principales perjudicadas de la crisis económica.

Por otro lado los recortes en el sector público han afectado directamente a la prestación de servicios sociales y en consecuencia a los sectores más vulnerables de la sociedad, en especial a las mujeres como soporte fundamental de la infancia y de la tercera edad.

4.- Pese que en la base de la economía se encuentran las tareas domésticas y las tareas de cuidado, se menosprecian tales trabajos, quedan ocultos, no se reconocen socialmente y tampoco se pagan. Se les niega hasta el propio estatus laboral, aún sabiendo que son la base de la vida, porque se trata de las tareas que generan y mantienen la fuerza de trabajo.

5.- En el mercado laboral, las mujeres cobran un 36,2% menos que los hombres. El 80,9% de las personas que trabajan a jornada parcial son mujeres.

Todo ello ha desencadenado que las mujeres hayan tenido que desenvolverse en un sistema productivo precarizado y sobrecargado.

Sí la igualdad entre mujeres y hombres no avanza, retrocede, porque el plano sobre el que se desarrolla el trabajo por la



Gordexolako Udala
Ayuntamiento de
Gordexola

berdintasunari egokitzen zaiona, eta neurri horretan, aurrera egiten ez duen orok egiten baitu atzera..

6.- Emakumeen bizi-baldintzez ari garelarik, ezin ahaztu indarkeria matxista. 2016an indarkeria matxistak 44 emakume hil zituen Estatu Espainolean eta 2 Euskal Herrian..

7.- Mugimendu feministarekin batera euskal jendartearen gehiengo batek egindako borrokari esker erreforma gelditzea lortu dela nabarmentzeak garrantzia handia du.

8.- Indarkeria matxista salbuespeneko gertakizun bat ez den neurrian eta gure egunerokotasunean bizi dugun neurrian, lehen mailako arazoa da guretzat.

9.- Hala ere, gure gizarteak desberdintasun handiak ditu oraindik emakume eta gizonen eskubide, botere, baliabide eta etekinak baliatu, garatu eta kontrolatzeko orduan. Gaur, beraz, berdintasuna lortzea egiteke dagoen lana da.

10.- Gaur inoiz baino areago, tratu txar fisikoa zein psikologikoa pairatzen dituzten emakume guztien ahotsa izan nahi dugu. Kolpeak, erdeinuak eta gutxiespena bakardadean bizi dituzten emakume guztiena. Indarkeria matxistaren biktima isil guztien eta bakoitzarena, beldurragatik irtenbide duina bilatzeko laguntza nahikoa aurkitzen ez dutenena. Herriaren

igualdad es una pendiente inclinada, y en esa tesitura, todo lo que no avanza sobre esa pendiente, retrocede.

6.- Si hablamos de las condiciones de vida de las mujeres, no podemos olvidarnos de la violencia machista. En 2016 la violencia machista ha matado a 44 mujeres en el Estado Español, 2 en el País Vasco.

7.- Es importante resaltar que se ha logrado paralizar la reforma de la ley del aborto gracias a la lucha llevada a cabo por una mayoría de la sociedad vasca junto con el movimiento feminista.

8.- En la medida en que la violencia machista no es un hecho excepcional y la vivimos en nuestro día a día, en nuestra opinión se trata de un problema de primer orden.

9.- Nos encontramos por tanto en una sociedad que sigue manteniendo importantes desigualdades en término de acceso, ejercicio y control efectivo de derechos, poder, recursos y beneficios por parte de mujeres y hombres. Hoy por tanto, la consecución de la igualdad sigue siendo una tarea pendiente que hay que abordar.

10.- Hoy más que nunca queremos ser la voz de todas las mujeres que sufren en silencio el maltrato físico y psicológico. De todas esas mujeres que viven en soledad, los golpes, las vejaciones, y el menosprecio. De todas y cada una de las víctimas silenciosas de la violencia machista, que por miedo no encuentran el apoyo suficiente para buscar una salida digna. Como representantes públicos



Gordexolako Udala
Ayuntamiento de
Gordexola

ordezkari garen neurrian, errealitate hori ikusgai egiteko erantzukizuna dugu.

11.- GORDEXOLAKO udaleko ordezkariok emakume eta gizon askez osatutako Euskal Herriaren alde lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu; horretarako, Gordexola indarkeriarik gabeko bizitza librea bizitzeko gunea izateko bitartekoak jarriko ditugu, emakumeen elkarteekiko eta mugimendu feministarekiko lankidetzaren sustatuko dugu, eta gure udalerriko emakumeek bizitza duina bizi ahal izateko politikak garatuko ditugu.

Martxoaren 8ko emakumeen mugimenduaren ekimenen alde egiteak garrantzia handia duela jakin badakigu, hori dela honako konpromisoak hartzen ditugu:

- Emakumeen parte-hartze sozopolitikoaren eta elkarte-ehuna sustatzea, sendotzea eta laguntzea.

- Udal erakundeen eta herritarren arteko itunak eraikitzea, tokiko berdintasun politikak egite aldera.

- Emakumeak eta emakumeen mugimendu antolatuak edota feministak tokiko berdintasun politikak bultzatzeko funtsezko solaskide gisa aitortzea.

- Mugimendu feminista edota emakumeek antolatutakoa bultzatzea, laguntzea eta sendotzea, tokiko bizitzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna mesedetzeko.

- Gure gazteekin berdintasun politikak eta, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuneko etorkizuna bermatzen dituzten proiektuak lantzea.

tenemos la responsabilidad, de hacer visible esa realidad.

11.- En el ayuntamiento de GORDEXOLA, sus representantes queremos comprometernos a continuar trabajando por una Euskal Herria de mujeres y hombres libres, dotándonos de los medios para que Gordexola sea un espacio en el que podamos vivir la vida libre de violencia, promoviendo la colaboración con asociaciones de mujeres y con el movimiento feminista y desarrollando políticas que posibiliten a las mujeres de nuestra localidad a vivir una vida digna.

Somos conscientes de la importancia de las iniciativas del movimiento de mujeres para el 8M y nuestro compromiso es:

- Impulsar, fortalecer y apoyar la participación sociopolítica de las mujeres y el tejido asociativo.

- Construir alianzas entre las instituciones municipales y la ciudadanía para la elaboración de políticas sociales de igualdad.

- Reconocer a las mujeres y al movimiento organizado de mujeres y/o feminista como interlocutor clave en el impulso de las políticas locales de igualdad.

-Impulsar, apoyar, y fortalecer el movimiento feminista y/o organizado de mujeres con el objetivo de favorecer la igualdad de mujeres y hombres en la vida local.

- Trabajar en políticas de igualdad con nuestros/as jóvenes, en proyectos de formación que garanticen un futuro igualitario entre hombres y mujeres.



Gordexolako Udala
Ayuntamiento de
Gordexola

- Emakumeen osasunari eta ongizateari zuzenean loturik dauden zerbitzu publikoetan murrizketarik ez egitea.
- No realizar recortes en los servicios públicos que incidan directamente en la salud y el bienestar de las mujeres.
- Berdintasun partidei eustea, eta emakumeengan murrizketa ekonomikoek sorrarazi dituzten ondorio kaltegarriak gizartean ikusgarri jartzeko konpromiso irmoa hartzea.
- Mantener las partidas de igualdad, adquiriendo el firme compromiso de visibilizar socialmente las consecuencias perjudiciales que han generado los recortes económicos en las mujeres.

2017ko martxoaren 8an, Udalbatzak omenaldia egin nahi die Gordexolako emakume langile guztiei, bere ahalegina eta ardura herriaren historiari loturik baitaude.

Gure aitorpena agertu nahi diegu Garsa lantegian lan egin zuten emakumeei, gure nagusiak zaindu zituzten eta zaintzen dituzten emakumeei, industrian, merkataritzan, gure herriko nekazal eta abere-lanetan, etxeko lanetan, gure seme-alaben irakaskuntzan, administrazioan, osasungintzan lan egin zuten eta lan egiten duten emakumeei, emakume profesionalei, emakume enpresariei eta gizartean bere tokia erreklamatzeko lan egiten duten emakume ekintzaile guztiei.

Emakume guztiengatik eta bakoitzarengatik, jadanik gure artean ez daudenengatik, bidezko gizarte baten alde lan egiten jarraitzen dutenengatik eta ahalegin horren fruitua bilduko eta jarraitzeko konpromisoa oinordetzan hartuko duten etorkizuneko emakumeengatik.

Gordexolako atzoko, egungo eta biharko emakume guztientzat, gure aitorpena eta esker ona.

Martxoaren 8an gure herrian mugimendu feministak deituriko ekintzekin bat egiten dugu.

Este 8 de marzo de 2017, el Ayuntamiento en pleno quiere rendir homenaje a todas las mujeres trabajadoras de Gordexola, cuya entrega y dedicación va unida a la historia de este pueblo.

Queremos mostrar nuestro reconocimiento a las mujeres que trabajaron en la fábrica de Garsa, a las que cuidaron y cuidan de nuestros mayores, a las que han trabajado y a las que trabajan en la industria, en el comercio, en las labores agrarias y ganaderas de nuestra tierra, en el servicio doméstico, en la enseñanza de nuestros/as hijos e hijas, en la administración, en la sanidad. A las mujeres profesionales, a las empresarias y a todas aquellas mujeres emprendedoras que luchan reclamando su lugar en la sociedad.

Por todas y cada una de ellas, por las que ya no están con nosotros/as, por las que siguen trabajando por una sociedad más justa, y por las mujeres del futuro que recogerán el fruto de ese esfuerzo y heredarán el compromiso de continuarlo.

Para todas las mujeres de Gordexola, de ayer, de hoy y de mañana, nuestro reconocimiento y nuestra gratitud.

Nos adherimos a los actos convocados en nuestra localidad por el movimiento feminista para el 8 de marzo.



Gordexolako Udala

Ayuntamiento de
Gordexola

. EUDELen adierazpenarekin bat egiten
dugu.

Eta izendatu beharreko hurrengo gune
publikoa, aurretik aipaturiko gizatalde
baten bati dedikatzeko hartutako
konpromisoari eusten diogu”.

. Nos adherimos a la declaración de
EUDEL

Y mantenemos el compromiso de que la
siguiente denominación de un espacio
público esté dedicado a uno de los
anteriores colectivos”.